

ARTIKULU BILDUMA. Datorren astean 20 urte beteko dira Libanoko Sabra eta Shatila iheslari guneeetan falange kristauek Israelgo Armadaren laguntzarekin palestinarrak sarraskitu zituztenetik. Hori dela-eta, EGUNKARIAK erreportaia sorta eskainiko die bere irakurleei, orduko eta gaurko protagonisten lekukotasun zuzenekin.

Fenizia zaharraren soineko berria



EGUNKARIA

GEMAYEL FALANGISTEKIN. Amin Gemayel Libanoko presidentea —erdian— Libanoko Falangeko beste zenbait bururekin, 1983ko irailean, urtebete lehenago hil zuten bere anaia Bashirren hilobiari egindako bisitan. Gerra zibila gori-gori zegoen artean Libanon.



AZIZA KHALIDI

American Universityko irakaslea

«Libanoko gizarteak ez ditu oraindik liseritu gerra zibila amaitzeko sinatu ziren akordioak; zauriak ixten ari dira»

EGUNKARIARI esan dionez, «bi arazo nagusi daude: batetik, gerra zibileko zauriak sendatzea, eta, bestetik, palestinarren arazoa, hots, Gobernuak ez dizkiele eskubide zibilak ezagutzen: Horrez gain, Israelen mehatxua dago; izan ere, oraindik Libanoko hegoaldeko Sheba eskualdea okupatzen du». Khalidiren esanetan, egun Palestinan gertatzen ari denak Libanon ere eragiten du.

«Bizitza oso gogorra da libanoarrentzat, ekonomia gaizki doa, globalizazioak eskualdeari era negatiboan eragiten dio...».

Kalean eta zenbait solaskideekin sumatu dugunez, libanoarrek aurrera begiratu nahi dute, eta iragan mingarri eta odoltsua ahantzi. «Ikusten ari naiz jende gaztea, komunitate ezberdinetako jendea elkarren artean nahasten doala; ni irakaslea naiz unibertsitatean eta hori ikus dezaket. Halere, denbora beharko da zauriak sendatzeko. Baikorra naiz, baina Libanoko hauteskunde sistemak, jauntxo feudalek... dena korapilatzen dute. Libanoko sistema politikoa ez dago heldua, eta horrek berradiskidetzea zailtzen du», azaldu du irakasleak.

Khalidi, musulman sunia da. Jendeak bere iritzia oinarri ideologikoetan izan behar dituela pentsatzen du, eta ez norbanakoekiko atxikimenduan. Aniztasunaren eta integrazioaren aldeko apustua egiten du andre libanoarrak.

Juanma Sarasola | BEIRUT
Berriemaile berezia

Beste zeinahi herrialderi baino gehiago Libanori ederki egokitzen zaio puzzle definizioa. Hainbat herri eta kulturen inbasioa eta kutsaketak oso sakon eta era berezitan markatu ditu bertako biztanleak. Aitzitik, ororen gainetik Libanokoak izatearen sentimenduak indar handia du gaur egun. Turismogune arras erakargarria izan zena —Mediterraneoko Suitza esaten zitzaion, luxuzko hotel, kasino eta abarregatik— zapi urratuaren trazak ditu egun; gerra zibil latzaren erabat sendatu gabeko orbain sakonez josia. Alabaina, poliki-poliki Ekialde Hurbileko printzesari bere soinekoa eraberritzen ari zaizkio.

Libano, Siriako kostaldea eta Palestina antzinatean canaaniten lurraldea zen, Canaan edo Fenizia deitua. Hiri eta merkataritzarako portu garrantzitsuak eraiki zituzten eta Mediterraneoa kontrolatu. Feniziak hainbat konkista pairatu zituen: persiarrak, greziarrak, erromatarrak... izan zituen agintari.

Libanoko zenbait gunetan herritarrek kristau katoliko maronita —San Maronen oroime-

nez— erlijioa hartu zuten. Gehienek kristau iraun zuten, Siria musulman bilakatzen zen artean. Palestinako ipar aldean eta Siriako hegoaldean bezala, Islametik bereizitako druzoak —etnia arabiarrekoak— Libanoko hegoaldean komunitate isolatuak ezarri zituzten.

XI. mendearen bukaeran Gurrutatuak Libanoko kristauen laguntza jaso zuten. XVI. mendean turkiar otomanoek Inperio Otomanoaren menpe hartu zuten Libano.

Sarraskiak egungo gauza soilik ez diren seinale, 1860an druzoek kristau maronitak sarraskitu zituzten eta 1861ean Frantziak esku hartu eta sultan otomanoari gobernadore kristau bat ezartzera behartu zuen.

1918an Frantziako Armadak Libano okupatu zuen eta 1920an, Sykes-Picot akordioarekin Siria eta Libano banatu zituzten, biak Frantziaren menpe geratuz. Urte gutxitara, 1926an, Libanoko lehen estatutu konfesionala ondu zuten.

1943an Karta Nazionala delakoarekin herrialdeko feudalismo politikoa finkatu zuten.

1948an Israelen eta arabiarren arteko lehen gerran Libanok paper ttikia jokatu zuen. Israelen garaipenaren ondorioz

milaka errefuxiatu palestinarrak iritsi ziren Libanora.

Gerren eta liskarren ildotik, 1958an Libanok lehen gerra zibila pairatu zuen. Camil Shammun presidentek deituta AEBetako marineak Libanon sartu ziren. 1967an Israelen eta arabiarren arteko hirugarren gerrak eraginda errefuxiatu palestinarrak gehiago iritsi ziren Libanora. Halatsu gertatu zen 1970eko Jordaniako *Irail Beltzaren* ondotik ere. 1975 eta 1990. urteak bitartean Libanok munduan gutxitan ikusitako ge-

rra zibila pairatu zuen. Odoluste izugarriak Fenizia zaharraren soinekoa berriz orbaindu zuen, betiko markak utziz.

Egungo arazoei aurre egiten

Beiruteko American Universityko Osasun Zientzien irakasle Aziza Khalidik dioenez, gerra zibila amaitzeko 1990an sinatutako Taifako Akordioak «oraindik ez ditu liseritu Libanoko gizarteak; zauriak oraindik ixten ari dira». Egungo arazoez mintzo, palestinarrak jatorriko gurasok zituen irakasle libanoarrak

GIZARTE ZATIKATUA

Puzzleak baditu milaka aurpegi

Libanoarren artean 18 komunitate ezagutzen ditu Konstituzioak. Askotariko gizartea da, kolore politiko eta erlijiosoari erreparatuz gero. Musulmanen artean xiitak, suniak, druzoak eta alauitak daude. Kristauen taldean, aldiz, maronitak —erri arabiarreko katolikoak—, armeniarrek —1915eko genozidioaren ondotik Turkiatik Libanora ihesi joandakoak—, greziarrak, ortodoxoak eta protestanteak ditugu. Juduak: gerra zibila baino lehen milaka batzuk ziren, nagusiki Beiruten, bertakoak zein beste herrialde arabiarretatik errefuxiatuak, baina Israelera joan nahi ez zutenak. Palestinarren artean musulman suniak daude, baita kristauak ere —gehienbat katolikoak, baina baita ere greziar ortodoxoak, koptoak—. Egun, langile siriarrek milaka dira Libanon. Haiek musulmanak ditugu.